



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Genero-arauak eta identitatearen
garapena haurtzaroan: marjinazio-
oroitzapen disidenteen analisisa**

*Alrati Leon Hernandez,
Rakel Gamito Gomez eta
Maria Teresa Vizcarra Moral*

269-274 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.33>



Genero-arauak eta identitatearen garapena haurtzaroan: marjinazio-oroitzapen disidentearen analisia

Leon Hernandez, I., Gamito Gomez, R., Vizcarra Morales, M.T.
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
irati.leon@ehu.eus

Laburpena

Lanaren helburua haurtzaroko genero-ikuspegira hurbiltzea da, genero-arauekiko paradigma kritiko batetik eta epistemologia (trans)feministetatik. Horretarako, Euskal Herriko sexu/genero disidentziaren kolektiboaren oroitzapenak aztertzen dituen kasu azterketa bat burutu da. Informazioa 4 talde eztabaidetatik jaso da eta 21 ahotsen marjinazio-oroitzapenak gurutzatu dira. Emaitzek erakusten dute identitatearen garapenean genero-kolonialitatea oso presente dagoela, paradigma intersektionalak eta testuinguruak beharrezkoak direla eta sozializazio prozesuan eskola, etxea eta berdinen arteko harremanak garrantzi handiko espazioak direla. Beraz, premia da genero-binarismoari eta horrek sortzen duen indarkeriari aurre egitea eta haurtzarotik aniztasuna modu integratuean lantzea.

Hitz gakoak: Hezkuntza, kasu-azterketa, memoriak, identitatea, haurtzaroa, generoa

Abstract

The aim of the paper is to address the gender perspective of childhood from a critical paradigm of gender norms and (trans)feminist epistemology. For this purpose, a case study has been carried out to examine the memory of the dissident collective in the sex-gender field in the Basque Country. The information has been obtained from 4 focus groups and the memory of 21 voices has been crossed. The results show that gender coloniality is very present in the development of identity, that intersectional paradigms and contexts are necessary and that school, home and peer relationships are important spaces in the socialization process. Therefore, it is urgent to address gender binarism and the violence it generates and to work on diversity in a comprehensive manner from childhood.

Keywords: Education, case analysis, memories, identity, childhood, gender,

1. Sarrera

Sexu/genero aniztasuna eta horrek haurtzaroan dituen adierazpenak interes sozialaren fokua argitzen ditu egun: politika publikoetan, diskurtso politikoetan, erakundeetan eta esku-hartze soziopedagogikoetan. Ikuspegi hori lantzeko, ordea, ezinbestekotzat jotzen da interpelatutako komunitateari ahotsa ematea, diskurtsoak zein eztabaidak testuinguruan kokatuak egotea eta horiekin harremanetan dauden posizionamendu politikoetatik egitea.

1.1. Sexu/genero sistema eta sexualitatearen auzia

Mendebaldeko pentsamoldea kategoria dikotomikoetan oinarritzen da errealitatea aztertzeko (Alvarez-Uria, 2013). Witting-en (2017) arabera, kategoria horiek artefaktu politikoak dira, gorputza irakurtzeko modu batzuei gailentzen zaizkien eraikuntzak direlako eta, atal batzuen interpretazioa arautzearen bidez, gorputza beste modu batzuetan bizitzeko aukera lapurtzen dutelako (Missé, 2018).

Dimentsio horietatik, beraz, heterosexualitatea orain arte eztabaidaezintzat eta naturalizat jotzen ziren bi kategorien arteko nahitaezko harremana bezala ulertzen da (Silvestri, 2019), produktu historiko eta sozial gisa, garai eta baldintza sozial jakin batzuen emaitza izanik. Ez da unibertsala: mendebaldeko kontzeptua da, kristaua, kolonizatzailea (Guash, 2000) eta kapitalista (Silvestri, 2019). Hortaz, maitatzeko modu bat baino gehiago da, bizimodu bat da (Guash, 2000).

Beti egon dira heteroarautzat eta sexu/genero binarismotzat hartzen diren eruedetatik ihes egiten duten sexu praktikak, adierazpen, gorputz eta identitateak, baina disidentearen kategorizazioak kontzeptu kokatuak dira (Guash, 2000; Rubino, 2019; Vasallo, 2019). Witing (2017) da adibide nagusietako bat, lesbianak emakumeak ez direla esaten baitu, erregimenean heterosexualean parte hartzen ez dutelako, eta Silvestri (2019, 65. or.) dio ideia horrek "aukera ematen duela gaur egun cis vs. trans eztabaidak eremu esentzialistatik kanpo ulertzeko".

Disidentziak "dibertsitate" termino hedatua ordezkatzeko ere bilatzen du, hitz erlazionala baita eta, aniztasuna ez bezala, sexu-arau bat dagoela adierazten du (Rubino, 2019). Horrela, posizionamendu eta estrategia politikoak ezartzen dira (Peluso, 2018). Ez da aniztasuna, disidentzia kontrahegemonikoa da, porrotak, okerrak, desbideratzeak, istripuak, generoaren proiektu biopolitikoan interferentziak (Tron eta Flores, 2013).

Arauaren aurkako jarrera horietatik estrategiarik ohikoenetako bat etiketak erabiltzean datza, hala nola, nolabaiteko ondoreza sortzen duten terminoak (marika, bollera) edo edozein ezaugarri pertsonali aplikatutako irainak (herrena, sudaka, lodia, nanoa). Termino horiek berregokitu egiten dira gorputzei ezarritako botere-harremanak ikusarazteko (Platero, 2018) eta, aldi berean, modu kolektibo eta subertsiboan ahalduntzeko (Sánchez, 2019).

1.2. Haurtzaroa eta identitatea

Arau sozialen hausturak txikitatik ager daitezke (Platero, 2014) eta, horregatik, berebiziko garrantzia du arreta haurtzaroan jartzea, genero-arauekiko ikuspegi kritikotik (Missé, 2019). Finean, "genero-araudia ez da deskribatzaile soila, aginduzkoa da, genero-identitatearen koherentzia eta egonkortasuna eskatzen ditu, femeninoa eta maskulinoa kontrajarrita sortzen ditu eta desiraren heterosexualitatea inposatzen du" (López eta Platero, 2017, 31. or.). Finean, ez gaude presio sozial horien eraginpean bakarrik, haiek eraikitzen gaituzte (Missé, 2019).

Gutxi gorabehera bi urte eta erdi betetzerakoan garatzen da sexu- eta genero-identitatea. Orduan haurrak bere kategoria zein den bereiz dezake, genero-atribuzio nagusien kontzientzia argia baitu. Bost urterekin, haurrak kategoria dikotomikoetako zenbait baldintza psikologiko erlazionatzen ditun, hala nola oldarkortasuna edo boterea gizonengan eta adeitasuna edo emozionaltasuna emakumeengan. Estereotipoak nortasun-ezaugarri gisa Lehen Hezkuntzako etapan areagotu egiten dira. (Reizabal, 2007).

Ikaskuntza horiekin batera, sozializazio-aldian, normaltasunaren mugak ikasten dira. Haurra zenbait hitz irain gisa erabiltzen hasten da, genero-arauekin bat egiten ez dituztenen aurkako hitzeko indarkeri modura. Argi eta garbi, jokabide horiek etiketatzeak iritzi soziala eskatzen du eta baita familiaren eta irakasleen kezka ere (Sánchez, 2019, 39. orr.).

Bizitzak, gizarte-, sexu- eta genero-arauei dagokienez, ezberdinak dira unearen arabera. Haurtzaroan, subjektua "proiektu" gisa eraikitzen da: mutilen kasuan, gizon, familia-sortzaile eta ugalkortasun-sortzaile gisa, eta, neskatoren kasuan, ugalketa-termino heterosexualetako emakume gisa (Tron eta Flores, 2013).

Bestalde, ezin da ahaztu generoa harreman-kategoria bat dela, gainerako ezaugarri soziokulturalekin elkarrengaitan duena (Serra et al., 2016). Jatorri kulturala, maila sozioekonomikoa, etnia, sexua, generoa, identitateak, erlijioa, afektuak, gorputz ez-arautzaileak edo (des)gaitasunak, kategoria hegemonikoen arabera, pertsonengan nahasten dira, interseksionalitateen planoan kokatzen gaituzten identitate ugari eratuz (Platero, 2014).

Beste genero edota genero bien ezaugarriekin identifikatzen den haurtzaroak zalantzan jartzen ditu haurtzaroi eta gorputzari buruzko doktrina kulturalak (Halberstam, 2018). Joera batzuen arabera, "haurren genero-desadostasuna" ezin da beti irakurri adingabe horiek trans pertsonak direla dioen esparru epistemologiko baten argitan (Guerrero eta Muñoz, 2018). Horrela, haurtzaro transaren gaia medikuntzaren eta "psi" (Psikologia, psikiatria eta psikoanalisi) esparruetatik kanpo eztabaidatzeko beharra sortzen da (Alcántara, 2016; Guerrero eta Muñoz, 2018).

Ikuspuntu (trans)feminista batetik, generoaren aniztasunean eta sormenean oinarrituta lan egitearen alde egiten dutenak ere badaude; generoa zurruntasun dikotomikotik kanpo pentsatzeko proposamenak luzatzen dituztelarik (Butler, 2004). Hau da, guztiz beharrezkoa da "haurtzaroa espazio politiko gisa pentsatzea, genero-programazioen objektu bilakatzeko gorputz gisa baino haratago, eskubideen subjektu gisa bazik" (Tron eta Flores, 2013, 190. orr.). Eta horren aurrean, hezkuntza-espazioek aniztasuna eta berdintasuna sustatzeko aukera ezin hobeak eskaintzen dituzte (Gallardo-López et al., 2020). Azaldutakoaren adibide dira azken urteotan gurean egin diren zenbait ikerlan, proiektu eta topagune, hala nola, 2018an Bilgune Feministak eta Emaginek argitaratutako *Transsexualitateak Hezkuntza-praktika feminista baterako ekarpenak* liburuxka, 2020ko martxoan Steilas sindikatuak egindako jardunaldiak, eta 2020ko azaroan Donostian egindako Hezkidetzeta eta pedagogia feministen kongresua. Beraz, garbi ikusi

daiteke ikerketa honetan jasotako urratsak egingarriak direla, materializatzea posible dela eta honezkero bidea egiten ari garela.

2. Ikerketaren helburuak

Lan honek haurtzaroko genero-ikuspegira hurbiltze bat bilatzen du, genero-arau paradigma kritiko batetik gerturatuz eta epistemologia (trans)feministetatik eredutzat izanik:

(1) identitatearen eraikuntzan eta genero garapenean eragina duten paradigma zentralak ezagutzea, osatzen duten alderdi eta sistemak deskribatzeko.

(2) haurtzaroaren oroitzapenetatik abiatuta bizi-esperientziak eta -faseak ezagutzea, intentsitate handieneko uneak eta espazio sortzaile/performatiboak ezagutzeko.

(3) epistemologia (trans)feministetatik hezkuntza-eremura eraman daitezkeen gakoak identifikatzea.

3. Ikerketaren muina

Ikerlana kasu-azterketa bat da, arazo berezi baten testuinguru, esperientzia eta konplexutasuna inplikaturako ahotsen bitartez aztertze aukera eskaintzen duelako (Barbour, 2013; Flick, 2014; Pérez-Serrano, 2014; Simons, 2011), eta inplikaturako eta askatasunez adierazitako ahotsen esanahiak azaltzen ditu. Kasu honetan, Euskal Herriko sexu/genero disidentziaren kolektiboaren memorietan dauden oroitzapenak aztertu nahi izan dira. Bildutako informazioa kualitatiboa da, errealitatera modu globalean hurbiltzeko eta aldaketa-dinamikak ulertzeko aukera ematen duelako (Woods eta Smith, 2018).

Lau talde eztabaida egin dira, galdera irekiz osatutako gidoi erdi egituratu batean oinarritutakoak. Horietan, parte-hartzaileek modu librean adierazteko aukera izan dute (Flick, 2014; Pérez-Serrano, 2014) eta esperientzia kolektiboak jaso dira, non genero-binarismoaren arau sozialak hautsi dituzten edo horietara egokitu ez diren haurtzaroetako bizipenen ahotsak gurutzatu diren. Hau da, "Oroimenaren eta berreraikuntzaren artean kokatzen diren kontakizun konposatuak izan dira, esperientzia eta legatuaren bidegurutzean" (Tron eta Flores, 2013, 191. or.).

Guztira hogeita bat lagunek hartu dute parte, sei lehen taldean eta bost gainerako hiruretan. Parte-hartzaile guztiak Euskal Herrian bizi dira egun eta euren burua sexu/genero disidente gisa definitzen dute, hau da, genero binarismoaren arauetatik kanpo eta kontra. Haien adina 19 eta 35 urte bitartekoa da eta alor profesional ezberdinetan aritzen dira (hezkuntza eta politika batik bat). Gehienek Euskal Herriko mugimendu (trans)feministetan parte hartzen dute.

Parte-hartzaileen aukeraketa nahitakoa izan da (Rekalde et al., 2014), euren bizipen, prestakuntza politiko eta/edo militantziaren araberkoa. Horretarako, kidetasunaz gain, elur-bolaren teknika ere erabili da (Taylor eta Bogdan, 1992), eta kontaktu zentralak beste batzuk erraztu dituzte. Elkarrizketak grabatu, transkribatu, kodifikatu eta NVivo 12 softwarearekin prozesatu dira. Aldi berean, analisi-tresna eraiki da (Flick, 2014): kategoria-sistema bat (1. taula), edukiaren analisi semantikoa egiteko (Rapley, 2014) eta informazioa dimentsio, kategoriatan eta azpi-kategoriatan antolatze (Coffey eta Atkinson, 2003). Kategoria-sistema modu induktibo eta deduktiboan definitu da. Hauek izan dira dimentsio nagusienak:

-Ikuspegiekin harremanetan: Identitatearen eraikuntzan eragin nabaria duten paradigmak ezagutzea bilatzen du eta, horretarako, generoarekin lotutako bi azpikategoria aztertu dira: (1) genero kolonialitatea eta (2) paradigma interesekzionala.

-Sozializazio prozesuak: ematen diren sozializazio prozesuak aztertzea du helburu eta, horretarako, analisiak hiru hizpide izan ditu: (1) inguruneak eta agenteek, (2) bizipenetan esperimintatutako faseak eta (3) emari pedagogikoa.

Ikuspegi errealagoa bilatu nahian eta esanahiaren ulermen hobea lortze aldera, ahotsak gurutzatu eta kontrastatu dira kristalizazio-prozesu baten bitartez (Denzin eta Lincoln, 2017).

Analisiaren emaitzetan ahotsak kodifikatu eta kategorizatu egin dira eta, modu honetan, kategoria-sistemak dimentsio, kategoria eta azpikategoria bakoitzean dauden agerpen kopurua

eta horren ehunekoa eskaintzen du. Hau da, 1. taulan ikusi daitekeen moduan, “elkarrizketa” (“Elkar.”) eta “Ahotsak” zutabetan dimentsio, kategoria eta azpikategoria bakoitzean zenbat elkarrizketa eta elkarrizketa horietako zenbat parte-hartzaile agertzen diren zehazten da; “erreferentzia” (“Erref.”) zutabeak, aldiz, dimentsio, kategoria eta azpikategoria bakoitzari buruz zenbat paragrafotan hitz egiten den jasotzen du eta “ehunekoak” (“%”) orokorrean gai bakoitza jorratzeari zenbat eskaintzen zaion.

Bestalde, kategoria-sistemaren bidez, jasotako ahotsen interpretazio kualitatiboa egin ahal izan da, metodo honek edukiak interpretatzeko erremintak sortzea helburu duelako (Flick, 2004) eta agerpen kopurua datu bakar bat delako. Interesgarriena kontzeptuei ematen zaion esanahia da. Hurrengo atalean definitzen dira ateratako ondorio nagusiak.

1. taula: Identitatearen eraikuntzari buruzko kategoria-sistema.

Gaia	Dimen.	Kategoria	Azpi-kategoria	Elkar.	Ahotsak	Erref.	%		
Identitatearen eraikuntza	Harremanetan			4	21	397	38.7		
		Genero-kolonialitatea			4	21	265	25.8	
			Binarismo		4	21	95	9.2	
			Heterosexualitatea		4	21	102	10	
			Arautik ihes egitea		4	18	68	6.6	
		Paradigma interseksionala			4	21	132	12.9	
			Alderdi eratzailak		4	15	55	5.4	
	Testuingurua			4	21	76	7.5		
	Sozializazio prozesuak				4	21	629	61.3	
		Sozializazio inguru eta agenteak			4	21	187	16.2	
			Familia eta etxea		4	18	40	3.9	
			Eskola eta irakasleak		4	17	31	3	
			Berdin artekoak		4	21	72	7	
			Erreferente positiboak		4	20	44	4.3	
		Esperimentaturiko faseak				4	21	257	25
			Nahastea		4	21	81	7.9	
			Kontzientziazioa		4	21	69	6.7	
			Ahalduntzea		4	21	107	10.4	
		Emari pedagogikoa				4	21	185	18.1
			Hezkuntza-diskurtsoak		4	17	43	4.3	
Hezkuntza-estrategiak				4	17	71	6.9		
Erreferente bilakatzea			4	19	71	6.9			
Guztira:				4	21	1026	100		

4. Ondorioak

Genero-kolonialtasuna oso presente dago identitatearen eraikuntzari buruzko haurtzaroko memorietan. Ahotsen arabera, jarraitu beharreko (hetero)arau oso zurruna da, eta hortik kanpo geratzea jarrera politiko eta gorputz-jarrera estrategikoa da eta, era berean, zalantza eta gogoetaz beteko bidea. (López eta Platero, 2017; Missé, 2019; Platero, 2014).

Binarismoan oinarritutako egituran, transgresioa ez da soilik genero-arauekin edo desirarekin edota orientazio afektibo-sexualarekin lotzen. Hau da, garbi ikusi daiteke generoa eta heterosexualitatea harreman-kategoriak direla, ezberdin eragiten baitute ezaugarri soziokulturalen arabera, horregatik da beharrezkoa ikuspuntu interseksionaletik aztertzea identitate, harreman edo gorputz ez arautzaileak (Serra et al., 2016; Platero, 2014).

Bestalde, argi antzeman daiteke haurtzaroren ikuspen modernoak, etorkizuneko emakume eta gizon proiektu bio-politikoak, zenbait gorputzetatik hautsi daitekeela (Halberstam, 2018; Tron eta Flores, 2013), hala nola gorputz (des)gaituetatik edo gizenetatik eta aniztasun bezala izendatzen den hori porrotak, okerrak, desbideratzeak, istripuak, generoaren proiektu biopolitikoan interferentziak dira.

Eragile sozializatzaileen artean, eskola funtsezkoa da genero-identitatearen garapenean. Eskola indarkeria-maila handiko espazioa da eta genero-zuzentzailea, ereduak betetzen ez dituzten haurrek diskriminazioa jasaten baitute. Bestalde, identitatearen kontzientzia izateak lotsa edota arbuioa sor dezake eta, beraz, ez dakar beti norberaren ahalduntzea. Horregatik, beharrezkoa da etengabeko lanketa eta berrikuspen bat egitea, identitatearen eraikuntza ez baita hasiera eta amaieran duen prozesu bat eta onarpenaren eta errespetuaren parametroetatik irakurri behar da, araua zalantzan jartzeko eta aldaketan egiturazko maila batean egiteko.

Aipatuko ideiak jarraituz, haurtzaroan LGBTIfobiari buruz hitz egitea ez litzateke guztiz zuzena izango: haur guztiak txikitatik genero arauekin eta horren alderdi eraikitzaileekin hausturak garatzen dituzten mementoetan jarri behar delako fokua (Alcántara, 2016; Guerrero eta Muñoz, 2018; Butler, 2004), hor kokatzen baita heterosexualitatearen kontrako borroka, malgutasuna ahalbidetuz eta araua arrakalatu.

Hortaz, ezinbestekoa da sexu/genero aniztasuna haurtzarotik modu integralean, diziplinartekoan eta jarraituan lantzea. Ildo horretan, hezkuntzaren esparrua ondare garrantzitsua da haurtzaroak igarotzen diren prozesuak ulertzeko eta begirada interseksionalek diskurtsoen eta estrategien oinarriak izan behar dute, horiek perspektiba gehiago har dezaten eta binomio kolonialak deseraikitze balio dezaten Era berean, eredu errealek eskainiz eta sexu/genero disidentziaren bizitza, eredu desiragarri bilakatu.

Finean, hezkuntza-espazioek baliatu behar ditugu, genero-arauekiko ikuspegi kritikotik eta ikuspuntu (trans)feminista zabaltzeko. Generoaren aniztasunean oinarritu behar gara, esperimentaziorako guneak eskainiz eta generoa zurruntasun dikotomikotik kanpo pentsatzeko proposamenak eskainiz (Butler, 2004; Gallardo-López et al., 2020).

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunerako lerro bezala, azterlan honen bigarren pausoak zehaztea izango litzake: ikerketa honen ondorioek ahalbidetu dituzten proposamen eta gako pedagogikoak Euskal Herriko testuingurura ekartzea, ikuspegi (trans)feminista eta praxi batetik. Horretako, hiru helburu edo ikerketa norabide proposatzen dira.

(1) ikastetxeen esperientziak biltzea, profesionalen ahotsak ikerlan honen bizitza historiekin kontrastatzeko eta sinergiak sortzeko asmoz.

(2) sinergia horien baitan, hezkuntza-sistemara ikuspegi (trans)feministatik eta izaera praktikotik eraman daitezkeen gakoak zehaztea, irakasleentzat tresna errealek sortze aldera. Aniztasunaren eta inklusioaren ikuspegiak feminismo interseksionaletik aztertuz.

(3) irakasleen prestakuntzan sexu/genero aniztasunari buruzko diskurtso eta errekurtsoak garatzea.

6. Erreferentziak

- Alvarez-Uria, A. (2013). Glosategia. In I. Castillo e I. Retolaza (Arg.), *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak* (279-308. orr.). EDO!
- Barbour, R. (2013). *Los grupos de discusión en Investigación Cualitativa*. Morata.
- Butler, J. (2006). *Deshacer el género*. Paidós.
- Coffey, A. eta Atkinson, P. (2003). *Encontrar sentido a los datos cualitativos: estrategias complementarias de investigación*. Universidad de Antioquia.
- Denzin, N. K. eta Lincoln Y. S. (2017). *El arte y la práctica de la interpretación, la evaluación y la presentación. Manual de investigación cualitativa. Volumen V*. Gedisa.
- Emagin eta Euskal Herriko Bilgune Feminista (2018). *TRANSexualitateak: Hezkuntza-praktika feminista baterako ekarpenak*. Emagin eta Euskal Herriko Bilgune Feminista.
- Flick, U. (2014). *La gestión de la calidad en Investigación Cualitativa*. Morata.
- Gallardo-López, J.A., López-Noguero, F. eta Gallardo-Vázquez, P. (2020). Pensamiento y Convivencia entre Géneros: Coeducación para Prevenir la Violencia. *Géneros, Multidisciplinary Journal of Gender Studies*, 9(3), 263-287. <http://dx.doi.org/10.17583/generos.2020.5477>

- Guerrero, S. eta Muñoz, L. (2018). Epistemologías transfeministas e identidad de género en la infancia: del esencialismo al sujeto del saber. *Revista Interdisciplinaria de Estudios de Género de El Colegio de México*, 4.
- Guash, O. (2000). *La crisis de la heterosexualidad*. Laertes.
- Halberstam, J. (2018). *Trans*: una guía rápida y peculiar de la variabilidad de género*. Egales.
- López, S. eta Platero, R.L. (2019). *Cuerpos marcados: vidas que cuentan y políticas públicas*. Bellaterra.
- Missé, M. (2019). *A la conquista del cuerpo equivocado*. Egales.
- Peluso, L. (2018). Apuntes para repensar la inclusión educativa. *Topos para un debate de lo educativo*, 10, 49-55.
- Pérez-Serrano, M. G. (2014). *Investigación cualitativa: retos e interrogantes*. La Muralla.
- Platero, R. L. (2014). *Trans*sexualidades: acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Bellaterra.
- Platero, R. L. (2018). *Ideas claves para las pedagogías transformadoras. Pedagogías queer*. CELEI.
- Rapley, T. (2014). *Los análisis de la conversación, del discurso y de documentos en investigación cualitativa*. Morata.
- Reizabal, L. (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida: familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. UPV/EHU.
- Rekalde, I., Vizcarra, M. T. eta Macazaga, A. M. (2014). La observación como estrategia de investigación para construir contextos de aprendizaje y fomentar procesos participativos. *Educación XXI*, 17(1), 201-220. <https://dx.doi.org/10.5944/educxx1.17.1.10711>
- Richardson, L. eta St. Pierre E. A. (2017). La escritura. Un método de investigación. In N. K. Denzin eta Y. S. Lincoln (Koordk.), *El arte y la práctica de la interpretación, la evaluación y la presentación* (128-163. orr.). Gedisa.
- Rubino, A. (2019). Hacia una (in)definición de la disidencia sexual. Una propuesta para su análisis en la cultura. *Revista Luthor*, 39, 62-80. <https://doi.org/10.15366/secuencias2020.51.004>
- Sánchez, M. (2019). *Pedagogías queer ¿nos arriesgamos a hacer otra educación?* Los Libros de la Catarata.
- Serra, P., Vizcarra, M. T., Garay, B., Prat, M. eta Soler, S. (2016). Análisis del discurso de género en las matrices curriculares del grado de ciencias de la actividad física y el deporte. *Movimiento*, 22(3), 821-834. <https://doi.org/10.47197/retos.v0i34.58846>
- Simons, H. (2011). *El estudio de caso: teoría y práctica*. Morata.
- Silvestri, L. (2019). *Primavera con Monique Wittig. Devenir Lesbiano con el dildo en la mano de Spinoza transfeminista*. Queen Ludd.
- Taylor, S. J. eta Bogdan, R. (1992). *Introducción a los métodos cualitativos en investigación. La búsqueda de los significados*. Paidós.
- Tron, F. eta Flores, V. (2013). *Chonguitas. Masculinidades de niñas*. La Modonga Dark.
- Vasallo, B. (2018). *Pensamiento Monogamo Terror Poliamoroso*. Laovejaroja.
- Wittig, M. (2017). *Pentsamendu heterozuzena*. Susa.
- Woods, P. eta Smith, J. (2018). *Investigar en educación. Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación*. Narcea.